



2023SPLE0014  
14.bilera: OHIKOA 2023/12/21

## UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2023/14

EGUNA: 2023/12/21

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:30

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

### **BERTARATUAK:**

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

### **EAJ-PNV udal taldea:**

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

### **EH Bildu udal taldea:**

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

### **Orain Deba udal taldea:**

Isidro Aristi Oruezabal.

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra.

## **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.**

### **1.- Aurreko bilkurari dagozkion akta onartzea, hala badagokio.**

Udalbatzari aurkeztu zaizkio 2023ko azaroaren 29an egindako osoko bilkuraren akta, onar dezan.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du 2023ko azaroaren 29an, egindako osoko bilkuraren akta.

Akta onartu ondoren, Gilen Garciak adierazten du hiru galdera dituela aktan jasotakoaren harira: Lehenik, 3 orrialdean 4. puntuaren azken esaldian hau jasotzen dela “Alkateak adierazten du eskaera jasota gelditzen dela” eta galdetu nahi duela ea zer ondorio dituen horrek. Ea erantzuna jasoko ote duten? Enpresarekin negoziazio jarraitu ote duen? Alkateak erantzuten dio Netx Funtzen inguruko galdera bat egin zuela eta galdera hori erantzuten denean azaldutako guztiari erantzuna ematen saiatuko direla.

Bigarrenik, azaltzen du 8. puntuan, zaintza ereduaren buruzko mozioarena, EH Bilduko zinegotzia Aritz Larrañagak zaintza mahia sortzeko proposamena luzatu zuela, eta jakin nahiko luketela ea zer egiteko asmoa dagoen, proposamena aurrera egingo ote duen, eta hala bada, nola. Alkateak erantzuten dio zaintza mahia martxan jarriko dela, Aldunditik dirulaguntza bat jaso dela zaintza sistema berri bat martxan jartzeko, eta horren inguruko nondik norakoak zaintza mahia batean erabakiko direla.

Eta, azkenik, 11. gaian, eskari eta galderatan. 1. puntuan, plangintzaren buruz galdetu zutela., udal gobernuak agintaldirako duen plangintzari buruz, eta, ea galdera horri erantzuna emango ote zaion ala ez, noiz, nola? Alkateak erantzuten dio horretan ari direla, eta erantzuna prest izan ahala emango diela agintaldirako plangintzaren buruzko informazioa.

### **2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetzen du ea inork zerbait adierazi nahi ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak azaltzen du EH Bildutik badituztela hainbat zalantza.

Lehenik, 542. Dekretuaren harira “Ez esleitzea Simon Berasaluze plazako 1 zenbakidun lokala udal bulegoetarako egokitzeko obrak egiteko kontratua”, ikusita behin betiko erabakia hartua izango dela, galdetzen du ea zergatik ez zaien ezer adierazi lehenago, horren inguruan behin eta berriro informazioa eskatu izan dutelako, azkena, idatziz. Alkateak erantzuten dio idatzizko erantzunari bihar bertan emango diola sarrera erregistroan, idatziz jaso dezan, baina orain aurreratzen diola Idazkaritzako teknikariak adierazi zuela gai horren inguruan erabaki bat hartu behar zela, enpresa bat erantzunaren zain zegoela, eta ikusita gai horren inguruko hausnarketa luzatuko zela, proposatu zuen kontratazio espedientea bertan behera uztea, eta hori izan da arrazoia.

543. “Zumardiko ingurua eta tren-geltokitik sartzeko bideak berrurbanizatzeko proiektua idazteko kontratuaren bermea itzultzea” Lurraldetasun Batzordean azaldu zuen bezala, enpresa horrek egin zuen lana alternatiben inguruko azterketa, “estudio de alternativas” izan zela, eta ez proiektua.

545. “Luzaro Ikastetxeko patioko eraberritze lanak”, galdetzen du ea bermatu daitekeen abenduaren 31rako lanak bukatuta egongo direla. Alkateak erantzuten dio hala esan zutela, eta badirudiela amaituko dutela.

Eta azkenik, 565. “Onartzea Debako Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala egitea”, erabakiarekin ados daudela, baina, jakin nahiko luketela zein den asmoa, eta zeintzuk diren ideiak. Alkateak erantzuten dio hau hasiera besterik ez dela, datorren urteko aurrekontuetan planteatzen



2023SPLE0014  
14.bilera: OHIKOA 2023/12/21

dela horretarako partida bat, eta ziur asko, 2024an honek izango duela jarraipena.

Bestelako adierazpenik edota galderarik ez daudenez, Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

### **3.- Vialine enpresak kudeatutako 2023ko trafikoko isunei buruzko Alkatetzaren dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetzen du galderak edo iradokizunak ote diren gai honen harira.

Ez dago ez galderarik ez iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

### **4.- Onartzea, hala badagokio, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren hitzarmenaren luzapena.**

Alkateak gaia azaltzen du gai hau Aldunditik datorren zerbait dela. Aldundiak 2021eko azaroaren 30ean onartu zuela etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko udalekin eta mankomunitateekin sinatu beharreko hitzarmen eredu, hitzarmen horren indarraldia 2023ko abenduaren 31ra arte zela, eta, hitzarmenak berak urtez urte luzatzeko aukera jasotzen zuenez, orain proposatzen dutela 2024. urterako luzapena onartzea eta sinatzea.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du urte betez luzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko hitzarmena, hau da, 204ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte.

### **5.- Onartzea, hala badagokio, Debako Artzabalgo udal hilerriaren eta beilatokiaren zein ekitaldi aretoaren funtzionamendua arautzeko erregelamenduen aldaketa.**

Alkateak azaltzen du aldaketarekin 5. kapitulua gehituko zaiola erregelamenduari, familia kolunbarioak arautzeko hain zuzen. Familia kolunbarioak sortu direla, familietako kideek elkarrekin ehartzeko aukera eman ahal izateko, eta horrek bermatuko duela Amillagako hilerrian ehortzitakoek Artzabalgo hilerriara pasatzea. Halaber, gehituko den kapituluan jasotakoa laburtzen du, eta aldaketaren ildo nagusiak azpimarratzen ditu.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du Debako Artzabalgo udal hilerriaren eta beilatokiaren zein ekitaldi aretoaren funtzionamendua arautzeko erregelamenduen aldaketa.

### **6.- Onartzea, hala badagokio, ez aplikatzea Euskadiko toki erakundeetako funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren (UDALHITZ) 95. eta 96. artikulua, adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko primei buruzkoak.**

Alkateak azaltzen du, Auzitegi Gorenak 2022an emandako hainbat epaien arabera (besteak beste, (martxoaren 16ko 344/2022 epaia, apirilaren 5eko 421/2022 epaia, eta 2022ko ekainaren 7ko 682/2022 epaia) UDALHITZeko 95. eta 96. artikuluetan jasotako adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko primak ordainsari izaera dute, eta ez datoz bat enplegatu publikoen ordainsariei buruzko Estatuko oinarritzko legerian jasotakoarekin, eta horrela, bidezkoa da bi artikulua horiek ez aplikatzeko erabakia hartzea. Horrela jasotzen baita deialdiarekin batera igorritako bi txostenetan, Eudelek eta aholkularitza juridikoa emateko kontratatutako abokatuek eginikoak.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du ez aplikatzea, ondoriorik gabe utzita, Euskadiko toki erakundeetako funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren (UDALHITZ) 95. eta 96. artikulua, adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko primei buruzkoak; izan ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera prima horiek ordainsari izaera dute, eta ez datoz bat enplegatu publikoen ordainsariei buruzko Estatuko oinarrizko legerian jasotakoarekin.

Udalbatzak, aho batez onartzen du ez aplikatzea Euskadiko toki erakundeetako funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren (UDALHITZ) 95. eta 96. artikulua, adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko primei buruzkoak.

## **7.- Eskari eta galderak.**

Alkateak galdetzen du ea inork baduen eskaera edo galderarik.

Gilen Garciak azaltzen du hiru aipamen egin dituela:

7.1.- Lehena, gai zerrendako 6. puntuaren harira, galdetzen du ea negoziazio mahian sindikatuekin negoziatu ote den UDALHITZeko bi artikulua horiek ez aplikatzeko neurria.

Alkateak erantzuten dio astelehenean, abenduak 18, bildu zela negoziatio mahia, bertan ELA eta CCOOko ordezkariak egon zirela.

Gilen Garciak erantzuna eskertzen du eta, halaber, adierazten du hurrengo baterako eskertuko dutela negoziatio mahairen bileraren berri izatea.

7.2.- Tokiko Gobernu Batzordeari lotuta, esan zitzaizela Tokiko Gobernu Batzordea bi astetik behin bilduko zela eta bertan adostutakoaren berri emango zitzaizela, horrela, galdetzen du ea Tokiko Gobernu Batzordeak bilerarik egin ote duen azkenaldian. Alkateak erantzuten dio ez dela bildu, izan ere Tokiko Gobernu Batzordeak ez ditu, gaur egun, eskumen berezirik, eta, horregatik, ez ditu bilerarik egin. Gilen Garciak azaltzen du hori horrela izanik, ea zergatik ez zaien horren berririk eman, eta Alkateak erantzuten dio, ez dagoela inolako arrazoirik horren berririk ez emateko, besterik gabe, ez zela egin.

Tokiko Gobernuaren Batzordea dela, Gilen Garciak zalantza tekniko bat azaltzen du: Tokiko Gobernuaren Batzordeari eskuordetutako eskumenak berriro ere alkateari edo osoko bilkurari bueltatzeko erabaki espresuren bat egon behar ote den ala, agintaldi berri bat hasterakoan alkatea eta osoko bilkurak dituzte eskumen osoak eta haiek erabakiko dute horiek eskuordetu ala ez. Idazkariak erantzuten du bigarrena dela zuzena, eta hala nahi izanez gero eskuordetze berriak erabaki beharko litzakeela.

7.3.-Hilerri berriaren espedientearen harira, familien batzordearekin biltzeko asmoa zegoela adierazi zizela, eta jakin nahiko luketela ea bilera egin ote zen familien batzordearekin. Alkateak erantzuten du, bilera egin zela, bertan aldaketak azaldu zirela, eta batzorde horrek deituta, aurreko igandean bilera bat egin zela elizan, alkate bezala gonbidatua izan zela, eta bertan ere azalpenak eman zituela.

Familien batzordeak deitutako bileraren harira, bertan bi udal ordezkari egon zirela, eta galdetzen du ea posible ote den jakitea horien ekarpenak zeintzuk izan ziren. Alkateak erantzuten dio, erregelamenduaren aldaketaren testua irakurri zuela, eta gero azaldu ziren hainbat zalantza argitzen saiatu zela. Hasieratik garbi utzi zutela familia kolonbarioak ezartzeko erabakia, eta baita erregelamendua aldatzeko erabakia aurreko agintaldian hartutako erabakiak izan zirela, eta oraingo udal gobernuari trasladoa egitea tokatuko zaiola.

Gilen Garciak, Ainhoa Urbietari galdetzen dio bilera horretara udal ordezkari gisa ala familien



2023SPLE0014  
14.bilera: OHIKOA 2023/12/21

ordezkari gisa joan ote zen. Ainhoa Urbietak erantzuten du bera Ainhoa Urbieta bezala joan zela, eta hori alkateari garbi azaldu ziola bilera aurretik. Gilen Garciak gogorarazten dio orain udal ordezkari bezala beste erantzukizun batzuk dituela eta horiek kontuan hartu beharko dituela, batez ere, orain ez dela asko Udala Fiskaltzara eraman zelako, funtsezko arrazoirik gabe. Eztabaida txiki bat sortzen da Gilen Garcia eta Ainhoa Urbietaren artean, Fiskaltzaren aurrean jarritako salaketak aurrera ez egiteko arrazoien harira.

7.4.- Antxoka Elorzak azaltzen du abenduaren 1etik aurrera egon direla zaborra biltzeko sistema berria martxan jartzen eta kontenedoreak-eta aldatzen eta, Ifar kalean, aurreko agintalditik aurreikusita zegoela egokitze lan batzuk egitea zortzi kontenedore ilaran jarri ahal izateko, eta harridura sorrarazi diela ikusteak zortzi kontenedore jarri beharrean, sei jarri direla, eta beste bi lorategian. Harritu egiten diela, sistema berria jartzeko orduan nola ez zen aurreikusi 16 metroko gune bat atondu beharko zela, eta nola den posible beira jasotzeko kontenedorea oraindik espaloian egotea. Horrela, ikusita urtarrileko osoko bilkuran aurrekontuak onartuko direla, eta mankomunitatearen gastuak igoera nabarmen jasoko duten aurrekontuak izango direla, uste duela horrelakoetan aurreikuspen handiagoarekin jokatu beharko zela. Bestalde, bai Ifar kalean, baita Geltokiaren inguruan, herriko bi gune potentenetan, errefortzu gisa udaldian jarri ziren errefusa biltzeko hainbat kontenedore, nahiz eta abenduan egon, bertan jarraitzen dutela, organikoa biltzeko kontenedore bana dagoen bitartean. Horrek, birziklatzea bultzatzeko ezarri nahi diren politiken kontra doala, eta galdetzen du udal gobernuak horren harira zerbait egiteko asmoa ote duen.

Udal gobernuaren aldetik erantzuten zaio, alde batetik, Ifar kaleko kontenedoreen harira, zaborra biltzeko erabiltzen diren kamioak tarte bat behar dutela kontenedoreen artean, horiek hartzeko, eta horregatik, aurreikusitako zortzi kontenedoreak jarri ahal izateko 16 metro baino gehiago behar direla. Gaia aztertzen ari direla konponbide txukunena lortzeko. Errefuserako eta organikorako kontenedoreen harira, mankomunitateetik esan dietela sortzen den errefusa organikoa baino gehiago dela, eta errealitate horri erantzuna emateko jarri direla kontenedoreak. Eurek ere ez daudela horrekin ados, eta mankomunitatearekin negoziatzen jarraituko dutela egoerari irtenbide bat emateko.

Amaitu aurretik, Alkateak gogorarazten du urtarrileko osoko bilkuraren bilera hilaren 31n egingo dela, eta Gabonak ondo ospatzea eta Urte Berri on bat izan dezatela opa die bertaratutakoei.

Besterik ez dagoenez, 19:30etan alkateak amaitutzat ematen du osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika  
Alkatea

Jose Luis Salaberri Iñarra  
Idazkaria